

## **DOKTOREGO AURREKO PRESTAKUNTZA** **KONTRATUETARAKO LAGUNTZEN DEIALDIA:** **FPI 2018 PROGRAMA**

### ***Deialdiaren ezaugarriak:***

Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioak 1.104 laguntzatarako deialdia argitaratu du. Horietatik, 10 gorde dira %33ko desgaitasuna edo handiagoa duten pertsonak kontratatzeko eta 4 Pazifikoko Aliantzako herrialdeetako (Txile, Kolonia, Mexiko eta Peru) nazionalitatea eta haietan bizilekua duten pertsonak kontratatzeko.

**Laguntzen helburua da "Generación de Conocimiento" eta "Retos de la Sociedad" 2017, INIA eta "Severo Ochoa"/"María de Maeztu" azpiprogramen deialdietan onartutako proiektuetako bati lotutako tesiak egitea.**

Esteka hauetan kontsulta daiteke laguntzak jaso litzaketen proiektuen zerrenda osoa:

- [Proyectos Retos y Excelencia](#)
- [Centros de Excelencia Severo Ochoa y María de Maeztu](#)
- [Proyectos INIA](#)

### ***Eskatzaileek bete beharreko baldintzak:***

Eskatzaileak izan daitezke 2018/2019 ikasturterako doktorego programa batean matrikulatuta egon edo onartuak izan diren pertsonak.

Ezin izango dira eskatzaileak izan baldintza hauetako edozein betetzen duten pertsonak:

- Doktorego aurreko prestakuntza hasi izana doktorego aurreko prestakuntzara bideratutako beste laguntza batzuetarako finantziazioaz Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Teknologikorako Plan Estatalaren edo aurreko Plan Nazionalen esparruan onartu eta garatutako doktorego tesi baten bidez.
- Doktore titulua izatea, Espainiako edo atzerriko edozein unibertsitatek emanda.
- 12 hilabetetik gorako doktorego aurreko kontratu bat eduki izana eskaera aurkeztu baino lehen.

### ***Laguntzen ezaugarriak***

Laguntzen helburua da doktoreak prestatzea doktorego aurreko kontratuaren modalitatepeko lan kontratuen bidez. Kontratuok, gehienez, lau urterako dira, eta soldata urtean 16.422 euro gordin izango da

Laguntzak bi kontzeptu ditu:

- a. Kontratuen finantziazioa.
- b. I+G zentroetan egonaldiak egiteak eta doktorego ikasketetarako matrikulak sortutako gastuak.

### ***Eskaerak aurkezteko epea:***

**2018ko urriaren 9tik 29ra, 15:00ak arte**

Eskariak Internetez aurkeztu behar dira, aplikazio hau erabilita:

<https://sede.micinn.gob.es/ayudaspredoctorales/>

Behin prozesu telematikoa amaiturik, eskaera **sinatu eta erregistratu egin behar da** behar bezala aurkeztutzat jo dadin.

***UPV/EHUko izapidea:***

Eskatzaileak berak aurkeztu behar du eskaera, deialdiaren lehen fase honetan ez baita beharrezkoa Ikerketaren arloko errektoreordearen baimena.

***Harremanetarako:***

Hautagaiek mezu elektronikoko bidez jo beharko dute Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministeriora: [predoctoral@mineco.es](mailto:predoctoral@mineco.es).

***Informazio gehiago:***

[Esteka](#)